

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Eskola-garraioaren lizitazioa atera du Hezkuntzak, 7,4 milioi eurotan

*Zerbitzua lau urtera bitartean luzatu ahal izango da*

Asteazkena, 2017.eko azaroak 22

Hezkuntza  
Departamentuak 2017-18  
ikasturterako [garraio-  
zerbitzuen lizitazio](#) argitaratu  
du, lau urterako luzagarria.  
Zenbatekoa, 7,4 milioikoa da;  
lau urtetan, 44,7 milioi.  
Nafarroako Gobernuak  
azaroaren 15ean onartu zuen  
lizitazioa egiteko baimena eta  
gaur bertan argitaratu da  
Gobernuko Kontratazio Atarian.



Hezkuntza Departamentua.

Zerbitzua emateko interesa duten garraio enpresek urtarrilaren 2ra bitartean dute aurkezteko epea, bihurtik aurrera.

Eskola garraio-zerbitzuen egungo lizitazioak aintzat hartu ditu Kontratu Administratiboen Epaitegiak egindako gogoetak, ANET elkarteak ezarritako errekurtsuari erantzunez, bai ibilbidearen prezioa zehazteko orduan, bai subrogazioa zehazteko orduan; bigarrenari dagokionez, sektoreko lan-hitzarmenak zehazten duena jarraitu da. Hala, gune geografikoaren arabera aldatu dira ibilbideen oinarriko prezioak, sektoreko lan-hitzarmenekin bete ahal izateko.

Gainera, kontratazio honen baldintza-agiriak Garraio sektorearen lan-hitzarmenak pertsonalaren subrogazioaz dioenarekin betetzera behartzen du.

Garraio-zerbitzuen lizitazioaren zenbateko osoa, 2017-18rako, 7.400.061,35 eurokoa da (BEZ barne) eta lau urterako da luzagarria (44.756.140,35 euro, luzapen guztiak sartuta). Ikasturte bakoitzari dagokion zenbatekoa ia 800.000 euro igoko da, aurreko urtearekiko.

Gaur egun eskola garraio-zerbitzua 17 enpresek eskaintzen dute (horietako 12 UTE dira). 260 ibilbide egiten dituzte egunero eta Nafarroako 11.500 ikasle garraiatzen dituzte.